

# OSASUNA ETA HAUR ESKOLA



ARTIKA ETA BERRIOGOITI HAUR ESKOLAK

# NEURRI OROKORRAK

Haur bakoitzaren osasun-erantzukizuna pediatarrena da, eta hark zehaztuko ditu gaixotasun jakin baten aurrean jarraitu beharreko irizpideak

## Zergatik ezin dira haurrak eskolara joan gaixo baldin badaude?

- **Bere osasunagatik:** haurra EZ dago ondo. Prozesu biriko edo bakteriano baten erdian egonez gero, litekeena da ondoezari neke fisiko handia gehitzea, eta etxean behar duen arreta eta zaintza behar izatea.
- **Osasun publikoagatik, arduragatik eta elkartasunagatik:** ikasgelan eta eskolan gaixotasuna zabal ez dadin.

## Zer osasun-informazio ezagutu behar du eskolak?

- Gaixotasun kronikoak edo osasun-egoera bereziak.
- Intolerantziagatik, elikadura-alergiengatik edo gaixotasun bereziengatik behar diren dietak.

## Zer egin etxean haur bat gaixotzen denean?

Eskolara ez eraman eta errekupeazio-denbora errespetatu. Haur bat eskolara edozein arrazoirengatik etortzen ez denean, eskolari jakinarazi behar zaio; izan ere, gaixotasun kutsakorra bada, hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuei ez kutsatzeko ekintza egokiak hartuko dira.

**Prebentzio ekintza bat, zenbat eta lehenago jardun, orduan eta eraginkorragoa izango da.**

## Zer gertatzen da haurra eskolan gaixo baldin badago edo istripua izan badu?

Familiari deitzen zaio lehenbailehen etxera eraman dezaten eta arreta eta jarraipen egokia jaso dezan.

Gaixotasun edo istripu larriren bat izanez gero, berehala jakinaraziko zaio 112ra eta familiari.

Komunikazioa azkarra izateko, kasu horietarako beharrezkoak diren harremanetarako telefonoak eskatuko ditu eskolak, eta familiak salbuespenezko egoera horri aurreikusita izan beharko du bere seme-alabaren beharrei erantzun ahal izateko.

Oro har, **eskolak ez die sendagairik emango** haurrei.

- Tratamenduren bat behar izanez gero (antibiotikoa, homeopatikoa edo antzekoa), familiak saihestu egingo du eskola-orduetan ematea.
- Salbuespenezko egoeretan, haur batek gaixotasun kronikoagatik tratamendua behar badu, honako hauek entregatu beharko ditu:
  - Osasun-txostena edo pediatarren diagnostikoa.
  - Prescripción médica donde conste el nombre del medicamento, la dosis y la hora o circunstancias de aplicación. Medikua agindua non sendagaiaren izena, dosia eta aplikatzeko ordua edo jasotzen duen.
  - Familiaren baimen sinatua, hezitzaileek sendagaiak emateko. Agiri hori eskolako zuzendaritzari eskatuko zaio.

## Zenbat denbora egon behar du haurrak etxean infekzio-prozesuaren arabera?

(Berriobeitiko, Berriozarko eta Buztintxuriko osasun-zentroetako pediatria-zerbitzuak Espainiako pediatria-elkartearen taula hartu du gidari gisa).

**SUKARRA.** Besapean edo ondestean hartutako 37,5° etik gorako gorputz-tenperaturaren igoera da. Ez da gaixotasun bat, organismoa infekzioetatik babesteko mekanismo bat da, bai birusek eragindakoetatik, bai bakterioek eragindakoetatik.

Arau orokor gisa, **sukarra eragiten duten gaixotasun guztietan**, horietako bakoitzerako gomendio espezifikoez gain, beharrezkoa da haurra 24 orduz sukarrrik gabe egotea (antitermikoak hartu gabe) eskolara itzuli aurretik.

INFEKZIO-PROZESU OHIKOENAK		ESKOLA-BAZTERKETA
<b>URDAIL HESTEETAKOA</b>	<b>GASTROENTERITISA (beherakoa eta/edo gorakoak)</b>	24-48 ordu arte sintomarik gabe (sukarra, gorakoak edo deposizio bigunak).
<b>LARRUAZALEKOA</b>	<b>ESKARLATINA</b>	Tratamendua jasotzen ari bada: tratamendu antibiotikoa hasi eta 24 ordura arte, egoera orokorrak ahalbidetzen badu. Tratamendurik jasotzen ez badu: sintomak hasi eta 3 astera arte.
	<b>MEGALOERITEMA (zaplaztekoaren gaixotasuna)</b>	Ez, salbu eta gelan normaltasuna eragozten duten buruko mina, mukiak, eztula, ondoeza edo sukarra badu.
	<b>ERRUBEOLA</b>	Exantema hasi eta 7 egunera arte, egoera orokorrak ahalbidetzen badu.
	<b>ELGORRIA</b>	Exantema hasi eta 4 egunera arte, egoera orokorrak ahalbidetzen badu.
	<b>BARIZELA</b>	Gutxienez erupzioa hasi eta 5 egunera arte edo lesio guztiak zarakar moduan egon arte.
	<b>INPETIGOA</b>	Tratamendu antibiotikoa edo lesioen sendaketa hasi eta 48 ordura arte.
	<b>EXANTEMA SUBITOA (Erroseola)</b>	Sukarra eta ondoeza duen bitartean.
<b>INFEKZIOAK ETA PARASITOSIAK</b>	<b>CONJUNTIBITISA</b>	Tratamendu antibiotiko topikoa hasi eta 24 ordura arte.
	<b>MONONUKLEOSIA</b>	Sintomak desagertu eta jarduera orokorra onartu arte.
	<b>GINGIBITISA/ESTOMATITISA (ahoko aftak)</b>	Ez, salbu eta haurrak sukarra edo ondoeza badu (ez badu jaten eta lerdea etengabe erortzen bazaio).
	<b>AHO-ESKU-OIN SINDROMEAK</b>	Bere egoera orokorrak uzten duen arte. Ageriko lesioak lehor egon beharko dute eskolara bueltatu aurretik.
	<b>MUGUET</b>	Ez, ez badu minik, ondoezarik edo narritadurarik irenstea edo xurgatzean.
	<b>HAZIZURRIAK</b>	Guruinak 5 egunehaz hantu ondoren, egoera orokorrak ahalbidetzen badu.
	<b>PEDIKULOSIA (zorriak)</b>	Tratamentua hasi eta 24 ordura arte.
	<b>GARATXOAK</b>	Ez, estaltzea gomendatzen da.
	<b>MOLUSKUM KUTSAKORRAK</b>	Ez, lesioak estaliz gero.
	<b>OXIURASIA (zizareak)</b>	Ez, tratamendu egokia hasi eta eskolari jakinarazi ondoren.
<b>ARNASKETA</b>	<b>GRIPEA</b>	Sintomak desagertu eta sendatu arte, 24 orduz sukarrrik gabe eta egoera orokorrak ahalbidetzen badu.
	<b>KATARRO-PROZESUAK</b>	Ez, sukarrrik, eztul fuertea eta arnasa hartzeko zailtasunik ez badu.
	<b>FARINGE-AMIGDALITISA</b>	Tratamendu antibiotikoa hasi eta 24 ordura arte, egoera orokorrak ahalbidetzen badu.
	<b>EZTUL FERINA</b>	Tratamendua jasotzen ari bada: 5 egun hasieratik. Tratamendurik jasotzen ez badu: 21 egun sintomak hasten direnetik.
	<b>TUBERKULOSIA</b>	Tratamendua hasi eta 2-3 astera arte.
	<b>SINUSITISA, OTITIS ERTAINA, LARINGOTRAKEOBRONKITISA</b>	Tratamendu antibiotikoa hasi eta 48 ordura arte, egoera orokorrak ahalbidetzen badu.
	<b>BRONKIOLITISA</b>	Erabat osatu arte (10 eta 15 egun).
<b>BRONKITISA ETA NEUMONIAK</b>	Erabat berreskuratu arte. Tratamendu bronkodilatadorearekin badago, eskolara ez joatea gomendatzen da.	